

ELHUYAR EZTABAIK: MIKROPLASTIKOAK ETA OSASUNA

Otsailaren 13an San Telmo museoan izandako Elhuyar Eztabaiden bigarren saioan aipatutakoak biltzen ditugu jarraian. Batetik, adituen hitzak eta bestetik bertaratutako pertsonen iritziak jasotzen dira.

Eztabaida emankorra eta interesgarria izan zen oso, eta ideia desberdinak eta askotarikoak azaldu ziren.

Joana Larreta Astola (AZTI):

Egunero izaten dugu plastikoen berri. Haien erabilera, gainera, asko handitu da azken urteotan. Eta garbi dago itsasoan arazo bat eragin dutela.

Tamaina handiko plastiko horietariko batzuk ur-gainazalean ikusten ditugu, baina beste batzuk itsas-hondoan metatzen dira. Plastiko horiek guztiak, pixkanaka, deskonposatu egiten dira eta mikroplastiko bihurtu. Hori gertatzen denean, itsas-ekosisteman sartzen dira, baita lur- eta aire-ekosistemetan ere.

AZTIIn, hain zuzen ere, plastikoak monitorizatu eta aztertu egiten ditugu Gipuzkoako eta Iparraldeko kostaldean. Eta monitorizazio horretan, laborategiko metodoa hobetzeko pausuak eman ditugu.

Itsas-hondoan dauden plastikoen azterketak ere egiten ditugu, eta badira puntu gorriak gure kostaldean. Mikroplastikoei hegaztietan duten eragina ere ikertzen dugu.

Ondorio gisara esan liteke itsas-ekosistemetan plastikoaren eragina aztertzeko protokolo eta metodo hobeak behar direla eta gure kostaldean ere badagoela arazoa.

Itsasoko hondakinen kudeaketa ez da egiten, eta zikloa amaitu behar da. Lurrean badago hondakinen kudeaketa, baina hondakin askok itsasoan amaitzen dute. Araudiak falta dira.

Joserra Otegi Olaso (EKOLOGISTAK MARTXAN):

2013 urtearen aurretik, zientzia-aldizkarietan 59 artikulua zientifiko baino gutxiago zeuden mikroplastikoei buruz. 2019an, aldiz, soilik urte bakar horretan, 777 argitaratu ziren.

Gaur egun kalkulaten da 22.000 tona plastiko botatzen dugula egunero itsasora. Alderaketa bat egiteko, Prestigeren hondamendiak 60.000 tona fuel isuri zituen itsasora. Ondorioz, guk bizpahiru egunetan isuriko genituzke plastiko tona horiek.

Gehien agertzen diren plastikoak janarien bilgarriak dira, ondoren plastikozko botilak, eta hirugarrenik poltsak.

Kalkulaten da plastikoaren produkzioarekin hasi ginenetik 8.300 milioi tona plastiko sortu dugula, eta horietatik 6.300 milioi tona hondakin bihurtu ditugula. Hau da, sortutakoaren gehiengoa hondakin bihurtu dugula.

Birziklatzea ez da irtenbidea: plastiko gehiena ezin da birziklatu eta birziklagarria den horretatik ehuneko oso txiki bat da errentagarria. European birziklatutako plastikoaren eskaria % 6koa da soilik.

Adibidez, ez du zentzurik ura botiletan izateak. Hemen txorroreko ura oso ona da eta ez da beharrezkoa plastikozko botiletan erostea.

Izan ere, plastikozko botila ekoiztea oso merkea da, baina hura itsasotik ateratzea oso garestia. Gainera, badago kontraesan bat. Botila erosten duenarena da, baina, botila hori itsasora heltzen denean, hondakin hori garbitzea guztion ardura bihurtzen da. Zergatik? Ordain dezala kutsatu duenak.

Plastikoen kontsumoa murriztea da bidea. Bilgarriak dituzten produktuak ez eskaintzea. Birziklatzea erraztu eta ekoizpena zaildu behar dira eta hondakinak kudeatzeko sistemak berpentsatu.

BERTARATUTAKOEN EKARPENAK ETA EZTABAIDA:

Hainbat erronka identifikatu zituzten gaiarekin lotura bertaratutako pertsonak:

- Beharrezkoa da hondakinen kudeaketa on bat
- Ekodiseinuan aurreratu behar dugu
- Araudia zorrotzu behar da (Bilgarrien legea)
- Pertsonen jarrera-aldaketa ere beharrezkoa da
- Erronka itzela da zer egin gaur egun dauden plastikoeekin
- Nola hezi gizarte-sektore marginalak? Nola bideratu hondakinen inguruko informazioa?
- Produktu ekologikoak normalean garestiagoak direnez, jendeak bestelakoak kontsumitzen ditu, gehiago kutsatzen dutenak. Produktu horien zergak igo beharko lirateke.
- Birziklapena saritu behar da diruz, Alemanian bezala. Plastikozko botilak itzultzean dirua ematen dizute supermerkatuetako makinetan.
- Heziketa beharrezkoa da, bereziki belaunaldi gazteena, eta epe luzerako izan behar du
- Erabaki politikoak beharrezkoak dira industriaren aurka.
- Ados plastiko eta mikroplastiko asko dugula, arazoa dela garbi dago, baina gehienak erabileren bakarreko plastikoak dira. Erronka da horiek murriztea.
- Gure kontsumo ohiturak aldatu ezean, zaila da plastikoaren erabileran murrizketa handirik egitea. Adibidez, erosketak astean behin egiten ditugu eta janariak gehiago iraun dezaten bilgarrietan datoz. Erronka handia dugu hor.

Erronkak identifikatuta hainbat hausnarketa eta eztabaida azaldu ziren saioan.

Erabiltzen dugun materialen % 50 plastikoak dira. Plastikoa ez da txarra, abantaila asko ere baditu. Adibidez, kotxeen pisua asko murriztu da eta, ondorioz, baita erregaien kontsumoa ere.

Plastikoak etsaia dira mezua ez da zuzena. Baina bestalde, plastikoaren onurak biztanleriaren gutxiengo batek soilik erabiltzen ditu mundu mailako populazioa kontuan izanda. Lehen mailako herrialdeek soilik. Aldiz, kalteak munduko biztanle eta herrialde guztientzat dira.

Beste ideia bat ere aipatu zen: plastikoek dituzten onura horiek berak ere izan litezkeela kaltegarri, bueltaren bueltan. Esaterako, produktuak urruneko lurraldeetan erostea ahalbidetzen dute eta ez bertakoak kontsumitzea. Izan ere, zergatik kontsumitzen dugu guk Txileko esparragoa, edo AEBetan ekoiztutako edari karbonatua? Bilgarri merkeetan gureganaino ekar litekeelako merke. Beraz, azkenean, hemengo produktuentzat kalte.

Hondakinen gaiarekin ere hainbatek zalantzan jarri zuen heziketak benetan ondoriorik izango ote duen. Aipatzen zen adibidez segurtasun-uhalaren erabilera legez ezarri zela eta isuna duela ez erabiltzeak. Heziketak ez duena lortu araudiak lortzen du.

Eta benetan plastikoaren beharra dugula ere zalantzan jarri zen eztabaidan. Patata frijituak kontsumitzea plastikozko poltsetan ez da behar bat pertsonentzat. Isuna izan behar luke horrelako kontsumoak. Eta Europako bi lege aipatu ziren:

- Kutsatzen duenak ordaintzen du
- Ekoizten duenaren ardura da produktuaren birziklapena bermatzea

“Zaborrik onena sortzen ez dena” leloa ere izan liteke saioaren amaierari dagokion laburbilduma.